1.º URTEA

IBAIZABAL

12ⁿ GUEIA

IGANDEETAN IRTETZEN DA | BIZKAIKO ETA GUIPUZKOAKO EUSKERAZ EGUINA | DOMEKETAN URTETEN DAU

1902-ko Epaillaren 23ⁿ | **Euskalerrian, iru peseta urtean.—Erdalerrian, sei peseta urtean. Guei Bakocha, Chakur chiki bat.** | 1902-ko Epaillaren 23ⁿ

IBAIZABAL-en Echea: Bilbon—Dendari Kalean (Calle de la Tendería) 19—Jaun José Astuy-renean.

Eskutitz edo karta guztiak zuzendu beitez artezkariaren echera: Tívoli, letra B, 2.º derecha.

ESTUALDIETAN

VI.—Eketa-ren estualdia

¿Nok esango eustan niri, iñoren estualdiak nasaituteko arazoa artu dodan oni, egunen baten, aguiñak zaarrez zulatu ta ulea urteisuz urdinduorduko neu aurkituko nintzala oraiñ artekoak baiño estuago? Don Blas neskazaarraren iguesi, arrankaritzardun elizguizona (1) burtzaiñ aiñentiagaz, alkate gorbeta bakoa gogobernadorearen aurrean, Okaran Bilboko Restaurentean, zapataria kurtzea beguien aurrean ebala etzirean aurkitu gaur ni baiño asko estuago.—¿Zer jazo jako Eketari? esan leie emen irakurlak—¿Bere nasaialdiak ezteutsoz *Ibaizabal*-ek aintzat artu gura? ¿aste santua bizirik igaroteko eukan makaillo gazia, ezin jandako moduan mindu etajako? ¿ala estualdi billa ibilli ta mundu guztia aurkitu etedau aukeran, nasai, zer nai ta asse daukala?

Ez, ene irakurla maiteak. Euskaldun zaarrak, norbait ezin estuago bizi dala adierazoteko, esakera polit bat euken eta dauke: *Aspildurako zorria baiño estuago bizi da ori.* Azpildurea zer dan eztakianak itandu beio edozein jostuni *modistea* edo *costurerea* ezpada. ¿Urrengo berbachuaren barri nok eztaki?

Iru aste onetan egon naz, irakurla azpildu bakoak, gueure eliza askotan jazoten dan gauza bat aguertu nairik. ¿Eztozuez iñoz ikusi ichasondoko nasa edo molla-ganean mutill bizkorrak narru gorrian, edo obeto esateko, eguzkiaz pintariko narru gorribaltzean, ichasora zapart nai dzanga (2) eguiten, da zeiñ ariñago legorreratu ta bata bestearen ondoren nasara barriro igon, da barriro zapart eta barriro dzanga eguiten? ¿Eta euren artean eztozuez ikusi gaztechuago batzuk, ez aiñ narru baltzdunak, zapart eguin nairik eta lagunak «bat, bi, iru; orainche!» esan-arren, bildur arren atzeratuten eta noizean bein goitik beera beguira, urazalari beeregui derichuela? Ori ikusi eztabenak gauza polit guztiak eztaukaz ikusita.

Onelanche ibilli naz iru aste onetan. Nire nasa edo mollea *Ibaizabal*-en altsoa izan da; buruz aurrera sartu bear nintzan ichasoa elizea da. Atzeraka ibilli oi direan iguelari (1) asi-barriak, euren buruari miñ eguiteko bildur izaten dira. Ni atzeraka ibiltea ezta izan neure buruaren errukiarren, beekoak ai-eneka ez ikustearren baiño. Arguiroago berba eguin daigun.

Tolosan (Guipuzkoan euskerazko arazoetan entzuterik andiena daukan urian), Durangon (Astarloaren jaioterrian), da beste uri askotan erderaz eguiten dira gure egun onetan eliz-berbaldi asko.

Iruzkin edo *comentario* gogorrik asko jatort gomutara; baiña emakuma percheta batzuen ederrarren eguiñiko utsa uts chikia dala erichita, gogorreguitzat euki eztaien nire nasaialdi au, zotz emon daiodan irakurkizun oni egui bi esanda. Egui bata gozoa da, amaren esku bigunak aratustez eguin oi deuskuzan *tostadak* baizen gozoa; beste eguia garratza da, sasi-okaran eldu bakoak baizen garratza.

1.ª Euskerearen adiskiderik mamiñenak elizguizonak dira.

2.ª Euskerearen arerio kaltegagarrienak elizguizonak dira.

EKETAK

(1) Iguerilaria edo uguerlaria.

(1) Oraiñarteko estualdien gueiak dira onek.

(2) Zapart eta salto gauza bat dira erri batzuetan. Dzanga edo must, musturrez beera uretan sartuten da.

AMA DOLORETAKOARI

Aitortzen dizut, Ama nerea
Eguin dedala pekatu,
Atsekabetu zaitudala nik
Eziñ dezaket ukatu,
Baña nai dizut atsekabea
Atseguiñetan trukatu
Bizitza on bat asten dedala
Ondo dezadan bukatu,
Lendabiziko nai dizut bada
Barkazioa eskatu,
Zazpi dolore zureakgatik
Arren zadazu barkatu.

JESUS GURUTZILTZATUARI

Gurutze baten illik
Ta iltzez josirik
Negarrez gaude Jesus
Zu or ikusirik:
Miñaren-miñez orra
Arkaitzak ausirik
¿Eta gu nola egon
Guindezke bizirik?

P. M.

BASERRITARRENTZAT

ABEREEN GACH PUZLATSUA

Azkenengo gueian ichi guenduen arazo au, adierazoaz zein iraaskorra dan gach puzlatsua. Ainbesteraiño da eze, beiñ sartu ezkero aberetegui baten, nekez urtengo dau, abere guztiai ezpada gueienai beintzat ukutua eguin barik.

Orregaitik, prantzes-euskaldunen artean askok eguiten dau, abere bat gachaz ikusi ezkero, onek botaten daben adurraz igortzi beste guztiai aoan, era batera igaro daien nai-tanaiez batak bestearen atzean igaro bear dabeen gacha.

Lanerako direan abereakaz ezta charto eguiña; bada, aste bi ondorean guertu dagoz euren bearrerako; ta bestelan, bata gaur eta bestea gaurzortzi asi ezketiño guessoaz, luzeroan eztago lanik eguiterik eurakaz.

Abere andi edo asirikoen artean illte guichi eguiten dau gach onek gueienetan; chikiak edo kumak bai garbitzen dauz errez beti. Andiak ill ez-arren, ain makal, argal ta gauza ezak isten dauz eze, kalte beguiragarriak eguiten dauz euren artean; okela edo aragui, esne, ta lanerako indar barik gueratzen dira, ta galduriko emoi onek aurreratu orduko, gastuak eguin bear dira. Orregaitik, bear barrekoa da jakitea zelan laburtu gach-aldia, ta zelan guichitu gachak beragaz dakazan galtzaiak.

***

Ugaria, biguna, ta legor edo sikua bear dau izan oeak edo azpiak. Janaria, errez jan leikena, al bada egosita emon bear iako; gordiñak edo latsak minduko leuskioz aoko puzla ta zauriak.

Aoa ta oiñak egunean bi edo iru bider busti lekioz abereari, *creolina* euneko lauan daukan uraz. *Creolina*, botikarioak eta drogueruak saltzen dabee; urari euneko lauan ezarri, au da, eun kilo uretan lau kilo, edo berrogueta amarrean bi, edo ogueta bostean bat; eraguiñaz, ondo nastu ura ta *creolina* orrek. (1)

(1) «El Progreso Agrícola y Pecuario» derichon Madrilgo albistari baten ikusten dogu beste osabide bat. Ozpiñ edo biñagrean *sulfato de cobre* derichon droga bat ipiñi, euneko amarrean, da onessegaz aoa garbitu. Guero aguinian gueratu direan zauri biziak, *acido cromico*-gaz ukutu ta erre. Miñ andia emoten eideutse osakuntza onek; baiña beiñ edo birritan eguiñaz eida naikoa osatzeko gueienetan.

Aoa bustiteko, zots baten ertzean trapu garbi moltsocho bat eguin, eta kontuz, leun edo suabe igortzi; oiñak bustiteko, uganikai edo erregadorcho bategaz eguiten da ondoen.

Abia daitenean gacha ardietan edo beietan, berealasse kendu bear iakez bildotzak eta chalchoak; bestelan errapean gacha artuko dabe, ta esan dogu abere-kumak asko illten direala gach onegaz. Jaten asteko moduan badagoz jaten erakutsi; ta ezpadagoz esnea batu euren ameai, ta esne au ondo egosita emon eurai. Gauza egosiak estauko gachik.

Aoko ta oiñetako puzla ta zauriak esan dogun moduan osatu, janariak egosita ta bigun emonaz, ta azpi legorr ta nasaia kortan eukiaz, eriotzatik abere asko ateraten dira, ta illgo eztireanak be egun guichiagotan osatuten dira.

ZUMELAGA

Aguiñ Kentzallia

Brechan aguiñ kentzalle
bat lengo goizian,
ari zan berriketan
denbora luzian;
ur batzubek azaltzen
zituben denari
esanaz:—¡Au da gauza!
erosi prest neri;
onek ditu aoko
miñak sendatutzen,
eta aguiñ kolokak
oso sendotutzen;
naiko dira tanto bi
ur gorri onenak,
edertzeko auan
diran ortza denak;
ara neronek ditut
aurrena igortziko,
ta bidez nola eguin
det erakutziko,

Esan bezela asi
zan ortzak bustitzen,
eta ur *gorriakiñ*
ederki *zuritzen;*
guero dio:—Siniztu
ote dan gauz ona,
ortzakin okertuko
det orain chanpona,
ara, bí puzka nola
eguingo detan au,
bat bi,... beguira ondo
bat, bi, iru ta *lau;*

ortzetan arturikan
dirua batetan,
asi zan okertutzen
indar aundiz bertan;
bañan diru zar ura
nairikan okertu
berari iru ortza
zitzaizkan puskatu.

PEPE ARTOLA.

ADISKIDE BI AUTUAN

(KARTA AGUIRIA)

Laugarrena

L. ABADEARI

(JARRAIPENA)

¿Jazo eteleike *euskera* berbaldi edo irakaskizunak eguiñ da bere, *apainduegui* eguitea? Baietz, derichat nik; eta modu edo *era bi-tan*. Au da; euskerazko berba edo itz eregui ta ezezaun utsakaz jardunaz; eta arguituteko ustez esaeraren bat diño gunean erderakada eder bat edo gueiagogaz. Ausse, azkenengo aitatu dodana da gustiz garaun ugaria gueure artean, gaurko egunean; euskera apaindueguidunak guichi dira, nire ezaunak beiñik bein; zeuriak be olangoak izango dira arean.

Utsik eguin eztaien ba arima-zaiñak eta bestelako jardunlari edo berbalariak, bear bearrekoa da jakitea *euskera*, entzulak edo aditzaillak *ulertuteko bestekoa-pro earum capacitate*. Onessegaitik, euskera ereguia, jasoa, bestez ganetikoa baiño eztakianak arima-zain berbalari ona izateko bear dau ikasi euskera zerbait leunagoa be; barriz, euskera leunik be eztakianak *erdera-ncrdoilloka* baiño, norezekoa dau sendo-sendo ekiñ eta euskera ederto eguiterañoko arloa amaitutea. Berba baten: arima-zain ona ta bear dan bestekoa *euskalerrietan* izateko, utsik eguin eztaian euren eta iñoren kaltean, *euskera ikasi bear da*. Buruera onessek aldean daukadazalako, nago aditu eziñik asko edo batzu-batzuen eguikeria; berberau izanik nire *illuntasun samarra* dakarrena autu onetanche. Ezta bakarrik illungarria niretzat; baita be bada *estutasuna* neure barruari emoten deutsana. Zerren, ainbat arima badagoz ez-jakiñen goseaz argalduta, aditu eztabeelako esan deutseena orain arteko berbaikizunetan, bai *erderakadaz josirik* aguertu deutsedazalako neure esataldia illuntasunez beterik, edo baita be euskera ereguieguian (au eztot uste), ¿zer da eguin bear dodana ondo gueratuteko neure Jainkoagaz, eta neure eliztarrakaz? ¿Ez alda zerbait *estuluteko gauzea* berberau?

Zeure adin argui, jakintsu eta eguizaleak poztuko nabela uste dot erantzuten deustazunean neure burua arguitu ta barrua zabalduteko guisan. Bitartean eta beti zeure adiskide onenetarikoen artekotzat eukizu, zeure lenagoko lagun.

ABADE GAZTEA

EUSKALDUN ERDALZALEA

ATSO BATEN ZIRIA

I

—¿Zer ari zerate, mutillak?

—Emen gaude Astakioren (1) berriak aditzen, guezur ta egui, erdizka or nonbait.

—Izan ere, ¿noiz etorri aiz Astakio?

—Atzo arratsaldean.

—Oraingoan erderaz ondo ikasia izango aiz, goi alde oietan.

—Ala, ala; nasteko duiñ.

—Bai gueiago ere; jakin nion, ausardi andiarekin eta ederki mintzatu itzakiola erderaz motz aietako bati, eori jo izan nai induanian.

—Sudurretako aizearekin ere botako nizkik nik bi motz. Makilla eskuan zuela, eta nigana zetorrela, arro arro, aietako bat, esan nioan: *Si te pego un ostikara en ipur-chunchur, ia te botaré mas que campantorre mas arriba, si no se queda catigao bota-punta en tras-zulo:* an juan zuan errian zan mutillik panparroiena kuskur kuskur eguinik. Bearko juan.... bestela....

—Aizak Astakio; ¿badakik erdera orrek euskerazkoa diruriela? Gure amonak berez ikasitako erdera eta ori, biok bat dituk: *El lasto le gusta mucho al zaldi con garagar*. Onelakoa dek gure amonaren erdera, eta irea ere berdintsu.

—Etziok amonarik lurrean, ni berdintzekorik erderaz.

—Ara ba non zeagoan mandazai batekiñ izketan; ua ta adituiok.

—Baniek lasterka.

II

—¿Quiere miel, señora?

—Mier.... no me gusta, pero en piñ á muticos para dar, cuando salen del escola, ya vale. ¿En cuanto?

—A seis perras chicas libra.

—¿Perrechikuak neguan nai ziñuske? Preskua zaude alajaiñetan ¡ja.... jai!

—Hable usted cristiano, señora.

—¿Yo cristiño? No por cierto. Es otro opinión; pero perechicus con nieves y cascabarres por mier? Bapo estamos. ¿Quiere usté un rial libra?

—Vaya, vaya, á Dios; arri... macho.

—Yo no soy marimacho, sino Praiskiñazi, y vaiga usté con Aingueguardako.

III

—Señora ¿donde está aquí Ponda?

—Ponda.... ¿para batiar? En Iglesia en korupe, ¿usté está batiao?

—Me parece que yo está batiao, cuando estaba niño y me ha nasido.

—Como tiene usté lombre?

—Perrando.

—Pues perradunes aqui están posada en cuadra; aquí están otros perraos también y pasa usté adelante sin complemento.

—Muchas gracias, después me vendré.

—Adios, Perrando.

(1) Eustakioren.

IV

—Amona, ¿ez aldu ezagutu ori?

—Estiat ez ezagutu.

—Ori da Goikoecheko Astakio.

—Astakio edo mandakio, Perrando dala esan zidak ba neri.

—Bai, ez ezagutzeagatik.

—Ondo ziok; lenengo ikusten dedanian aditu bear zidak ba nai eztuena.

—Ona emen non datoiren, irriparrez zerbait esan naian.

—Parkatu Praiskiñazi, parkatu; jolasa izanda-ta; eta oraiñ bota gaztetako bertsocho bat.

—Bai, guizona, bai, pozik eta borondate guziarekin; aditu ondo:

Belarriak luze ta
Zabal bekokia
Okullu ortan bada
Zuretzat tokia,
Zorrotan (1) ibillteko
Zera egokia,
Etzera Astakio
Baizik Astokia

Astakio edo Perrando, zerana zerala. Len zuk neri jo dirazu adarra; orain nik zuri sartu dizut ziria, eta kitu. Kontuak garki eta adiskide zar. Erdalerrian ikasi eztezuna ikasi dezu Euskalerrian, eta oraiñ badakizu nolakoa dan *Atso baten ziria*.

P. M.

(1) Zorroa esaten diogu iriñez betetako zakuari.

DATORRENA BETOR

Pachi eta bere emazte Jossepa Iñassi bizi ziran alkar maitatuaz zori onez beterik. Andrea zan chukuna, alaia eta zintzoa; guizona bearguiñ aundia, prestu eziñ gueiagokoa, beti zuzen jokatzen zuana nola echean ala kanpoan, beragatik ez batak eta ez besteak etzuten auzoan beincho ere zer esanik ipiñi onratzeko edo ispillutzat erri guztian izateko ez bazan.

Ez ziran, ez, aberats purrukatuak, baño aien kabia, kabi gozo izenekoa izandu zan beti, zergatik osasuna, pakea eta eguneroko jaki ondo gozatua ez ziran an faltatu sekulan.

Eguia da Jossepa Iñasik ez zuala izan, aldameneko andrè Kataliñek bezela, cherria ill da odolkiak lagunari bialdu ondorean, lukainka eta urdai azpikoarekiñ sukaldeko chimini inguruak apaintzeko atseguiñik.

Kezka onekiñ senarrak ikusten bazuan noizik beiñ esan oi zion: Andrechoa, kuchatillan bedegu beti champon sall bat cherriki edo bestelako gozagarriak erosi nai badituzu; ni kontentu naiz zurekin, zu Pachirekiñ bezela ¿zer beardegu gueiago?

—Ala da, Pachi, baño beguiak aurrean jarri zizkigun Jaungoikoak, eta aurrekoak ikusten dituanian gu baño ondasun gueiagorekiñ, alako gauza batek eguiten dit nere barrunean *pill, pill*, zerbait gueiago nai baluke bezela.

—Ori ez dago debekatua Jaunagandik, berak, jakinduri utsa izanik, biotza nai izateko eguiñ zigulako.

Ontan asi ziran esnai zeudela amesetan, guztiok beiñ edo beste eguiñ oi degún moduan.

Guk au baguendu, guk bestea baguendu, senar emazteak ari ziran bata bestearen amesari su ematen, eta ustez ustekabean ikusi zuten chiminitik bera sartzen, amona kaska churi polit bat makillacho bat eskuan zuala esanaz.

—Iru gauza eskatu nai badituzute, nik daukat eskubidea bertan zueri emateko. Bakoitzak eguiñ beza bere eskaera, eta irugarrena berriz izan dedilla bion baimenarekiñ.

Au esanarekiñ batean etorri zan lekutik juantzan gure amonachoa.

Guizonak andreari, eta andreak guizonari eguin zioten bat batean galdeera. ¿Zer eskatu guentzake.?

—Utzi dezagun biar arte ardura ori, demboraz gauzak obeto jaio eta obeto eltzen diralako, zion gure Pachik, ta Jossepa Iñassik beste ainbeste zerizkion.

Baño, oni asi zitzaion biotza armoni aundian, bat nai zuala eta bestea bear zuala eta barrunean eziñ kabiturik an jaio zizaizkion naiak esan zuan:

—Odolkicho bat orainchen zeñek leukean.

¿Zuk esan dezu? Orra nun datorren chimini zulotik bera odolki mardul, eta koipatsu eder bat.

—Andrea, dio Pachik kopeta zimurturik, orra alperrik galdu lenbiziko eskabidea. ¿Etzenduan gauza oberik opa? Ez nuan esango orren ezereza ziñanik. ¡Emakumea beti emakume! Arrazoi andiaz dio Alemaniko Schopenhauer jaunak, emakumea dala, kriatura bat *illeak luze eta irudide edo ideak labur dituana*.. Egui aundia, zureganako ichumenagatik orain daño sinistu ez nuana, eta oraiñ garbi garbi ikusten dedana. Su eta gar jartzen nau zure ateraldi motzak, eta merezi dezun bezela naigonuke sudurraren puntan itsatsiko balitzazuke.

Salto eguiñik, bizia balitz bezela, odolkia jarri zan tente, tente, Jossepa Iñassiren sudurraren gañean, aiñ irmo, nola dagon eun urteko aritza bere zaiñ luzearekiñ lurrean josirik.

—¡Ai au lana, Pachi!, ez nuan uste, orren odol charrekoa ziñanik. Ni betiko galdu naiz nere sudur gañeko pisu aundi au kentzen ez bazat.

Biguñdu zan Pachi onaren biotza, kupitu zan andre gassoaren planta ikusita, eta esan zion.

—Barkatu, ez nuan nik ori nai eguiaz, baño amon ori, ikusten danez presati aundia da. Ez dezazula negarrik eguiñ, jarriko diogu odolkiari soñeko polit bat; jendeak irugarren egunerako beguiak ortara jarriko ditu eta neretzat berriz leen da guero izango zera Jossepa Inassi kuttuna. Oraiñ, bion baimenarekiñ eskatuko degu diru mordoska bat;

dirua duanari, dakizun bezela, munduak ongui etorria eguiten dio, ta biziko guera nai bezela.

—Alperrik ari zera, Pachi, ez dot nai soñekorik, ez det nai dirurik, sudurgañeko tontor au kentzea baizik.

—Izan dedilla zuk nai dezun bezela, naiz diru bague guelditu, zu zerala merio.

Aguertu zan berriz amonachoa esaten zuala makilla alchaturik.

—Ondo dagoanak gaizki dagoala uste du sarritan, zuek oraiñ bezela, Jaunak gauzak ondo jarriak dauzka eta ez dezala guizonak uste, oni, ez trukean eta es museau irabaziko dionik, berak dakielako bakoitzari zer tokatzen zaion. Zeren aldetik arreta para ondorean artu dezazute bada', Jaungoikoak bialtzen dizutena esanaz, *datorrena betor*.

AITOR-EN ALABA
F. A.

ASTEKO BERRIAK

Bizkaian

Joan dan asteartean edo martitzenean euki eban gure Diputaziñoak bere asteroko batu-aldia edo sesiñoa.

Azken-aldera, Aureliano Galartza diputauak irakurri eban eskabide bat, eta beronen guna edo sustantzia ausse da.

1876-ko Baguilla-ren 21ⁿ Españako gobiernuak kendu ebazala gure foruak indarrez, eta orduan Guernikako Arizpean batu zan Batzarrak (Junta jeneralak) al izan eban moduan gogarpetu edo protestau ebala Gobiernuaren eguitadea, ta ganera erabagui ebala aurrerantzean, zein bide eroan, gure libertadea barriro gueuganatuteko.

Erabagui au beteteko (konpriduteko) Diputaziñoak artu daizala bear direan neurriak eskatzen dau Galartza jaunak, eta bere ustez arazo onetan Diputaziñoaren ondoan aurkituko dala Euskalerri guztia, zeiñek oraindiño eztauz aztu, ta aztukó be ez, bere anchiñetako legue zaar eta ederrak.

Beste edozetarako, euskaldunen gogoak, munduko beste erri guztien antzera, bat eguin barik dagoz; baiña gure Legue zaar eta gure Euskera maiteari jagokeezan gauzetarato, bat eguin izan dabe beti, eta orain be eguingo dabe Bizkaiko Diputaziño goragarriak aurrean jarri ta bidea erakusten badeusku.

Jagui, ta aurrera; gueldi dagoana, ez iñorako ez ezertarako dago.

Guipuzkoan

Datorren Aprillaren 15.ⁿ guertu egongo eida, Igueldoko mendian Orkolaga jaunaren ardurapen ipinten daragoioen oarteguia edo *observatorio*-a.

Berak asmaturiko termometro ta barometroak jarriko eidira bertan.

Lagundu daiola Jainkoak abade jaunari bere eguikizun oneguintsuetan.

BERTSO-BATZALDIAK

Gaur amabost iragarri guenduzan batzaldi bietatik lenengorako ainbat bertso etorri dira. Euren artean, Bilboko José J. Alberdik eroan dau lenengo saria, ta Errenteriako Elizecheak bigarrena. Eskatu beie gura daben liburua.

Alberdi-ren bertsoak gaur doaz, Elizechearenak urrengoan.

Gaur baltzaldi barria «Mutillzaarrak» gueitzat daroala; bialdu leikez mutilzarren bertsuok datozan aste bien barruan.

AGUAZILLEN BIZIMODUA

Eztau iñok ezautu
Munduan guizonik
Aguazilla baiño
Serioagorik;
Bere bekoki illuna
Beti dago itzalik,
Bere ezpanetan ezta
Ikusten barrerik.

Beste guztiok leguez
Baleuka barrea
Laster galduko leuke
Autoridadea;
¿T'orduan zer litzake
Emen guertatzea?
¡Sustarretik galduta
Soziedadea!

Sarjentoa dan leguez
Konpañia baten
Bere eskuz dituela
Soldauak zuzentzen,
Alanche aguazillak
Iru lau alkaten
Indarrak eukiten dauz
Errian aguintzen.

Bilbon daukaguz eurok
Oso eder jantzirik;
Aiñ ondo dagoz eze
Iñoz baserritik
Ona datorrenean
Praisku edo Chominik
Chapela erasten deutse
Guztiz izuturik.

Chakur amurratuak
Dira bigunakaz
Katu bildurti batzuk
Barriz gogorrakaz,
Amurru-arren beti
Baserritarrakaz,
Koipea langosseak
Señoritoakaz

Salgueiaz baserritik
Datozan neskachak
Ipiñi daiezala
Kale-ertzetan oiñak,
Laster botako deutse
Multea aguazillak,
Ta multea guichi dala
Aguiraka charrak

Euskaldun uts garbi bat
Badátor Bilbora,
T'eztakiana doa
Ari itandutera;
Bruto, habla en cristiano
Dau erantzuera,
Ta lebita-tzar dunak
Eguingo dau bira.

Peru —Umekerirk etzak esan, choriburu erguela.

Manu —I erguelagoa aiz, demontre eltzekirtena.

Peru —Kirtena, ¿nori esaten diok ordea ik? ¿Eztakik bada orduaria aurreratuagatik, egunak beti oguei ta lau ordu dituela?

Manu —¿Eta orduan gauak, zenbat ditu?

Peru —Issilik ago, isillik, sopak jan bear dituk oraindiokan nik ainbat jakiterako-ta.

Manu —¡Orra ba! Bein Maisuak esan baziran ere *sabio solomo*, bai beintzat ik ondo aditu. Obea izango uan esan bañan eman eguin baziran solomoa... Eta, ¿iganderako arria topatu aldek?

Peru —¿Ze arri?

Manu —¡Ik, nik bañan gueiago jakin da, arritzen nauk ori esatea! ¿Anaiak aguindu etziguk, pregoiko egunean Donostira gaituela eramango? Baa, itsasoa lenengo aldiz ikusterakoan, arri bat eskuan eraman bear izaten omendek noski.

Peru ¡Ja, ja, ja, ja, jai! Korchu ederra sartu dizue, anai; ¿ori ere siniztu?

Manu —Nik beintzat billatu diat, ara;

José. Eztakit eche-aldekoa dan ala ez; bañan echearen... aldegokorik lanik asko beste bat arkitzen.

Pachi. ¿Zein da bada, zein; jakin al dezaket?

José. Bai, bai, guizona, echean daukagun neskame Karmen.

Pachi. (¡Orain zer esan bear diot nik!) José, badakigu eztala egoki zuretzako Karmen neskamearekin ezkontzea; bañan siniztu dezakezu obeak bañan charragoak munduan gueiago dirala. (¿Ondo asi ote naiz?)

José Neretzako egokia bada ta ezpada, arrekinche ezkonduko naiz, ta kitto.

Pachi. Eztezazula jolasean ere Karmenekin ezkontzen zerala esan.

José. Ez jolasean, baizik bene-benetan diot.

Pachi. Chukuna eta garbia dirudielarik, beste gauza gueiago ere badira guero ondo beguiratu bear zaiotenak ezkontzerako. ¡Ez dakizu zer mutill dan zuen echeko neska! (¡Au da, au, eztuasuna!). Issill-issilik esango dizkitzut belarrira neskach orrengatik zabaldu izan diran kontuak, baldin da baldin eguiz badiozu beintzat ezkontzen zerala. *(Erdi*

Baserritar garbiak
Kalean gogaitu,
Eskuko makilliaz
Mutillak ussatu,
Ordi bat edo beste
Perrera-ra sartu;
Aor bere eguikizunak
Nun diran amaitu.

Chanboliñen ganean
Egoala autuan
Bergarako Mujikak
Zirauskun lenguan:
«Chit asko izan-arren
Alperrak munduan
Chiki guelditzen dira
Beraren onduan.»

Ai Mujika Mujika
Erdu ona Bilbora,
T'irakatsiko deutsut
Ezautzen alperra;
Chanboliñak lanean
Errimeak dira
Aguazillen ondoan
Ipinten badira.

Ikusten dira gueldi
Kale bazterretan,
Gorputza ezin eukirik
Kadera gañetan,
Zirkiñik eguin barik
Ainbeste ordutan
Dirudie zurezko
Guizonak benetan.

Oraindiño eztabe eguin
Inoz *huelga*-rik;
Aurrerantzean bere
Eztago bildurrik,
¿Orduak zeñan kendu
Orren lan-alditik?
Ezin lei kendu ezer
Eztagon lekutik.

Sari chikieguia
Daukela diñoe,
¿Olangorik sekulan
Aitu etedozue?
Eguiten dabena ba
Pagau leuskioe
Emonaz egunero
Iru lau botoe,

Belarri-mochak dira
Aguazill gueienak,
Gauza orretan daukagu
Ondria euskaldunak;
Alperreriarako
Ezkara gu onak;
Arlo au luze eguin da
Eta agur guizonak.

JOSÉ J. ALBERDI.

IZKIRIMIRIAK

Mutill koskor batek ikaslekura bidean arkitzen du bere laguncho bat bi atzaparrak gastaiñez beteak dituela, eta galdera eguiten dio:

—¿Zertzuk dituk or, i?

—Gastaiñ egosiak.

—Ire aita nere osabe dek.

—¡¡Neretzako ere guchi izkiat!!.

TOLOSAR BATEK

Galdetu zioten beiñ Fernando Amezketakoari.—¿Zer eguin gariak? —Iriña eta saia, erantzun zuan.

¿Zer gauza da dolorea? galdetzen dio erretoreak eta Fernandok erantzuten du:

—Maian ez eukitea laborea.

JUAN M. ORKOLAGA

IGARKIZUNAK

I

Bata iruba
Donostian da,
Ontzia franko
An egoten da;
Bia ta *iruba*
Da jokurako,
Nai bada tute
Ta muserako
Nere *dena* da
Elkar jarrita
Bizi leku bat
Oso polita

ARTOLA

II

zintzarria beia

MADRILGO AMEZKETARRAK

III

¿Zerez beteko da pertz bat utsik baiñan guchiago pissatzeko?

TOLOSAR BAT

Lengo astekoen epaiak: lenengoa, *Maiatza*; bigarrena, *Ume chiki bi.*

Igarri dituez: Lenengoa, Bermeoko *Biarguin batek*, *Tolosar batek*. Bigarrena, Guelbenzuk. Eta biak: Bergarako Irigoyen-ek; Eibarko E. U-k, eta Larreateguik; Azpeitiko Jose Abalia-k; Markiñako Erramonchuk; Lekeitioko Amantzi-k; Tolosako Saizar ek; Yurretako Madariaga-k; eta Arechabaletako Ilteguialdek.

Esakera da barauak adimentua zoli eukiten dabela; au diñot, garizuman gagozalako ta gure igarkizunchoak ankape biurtzen deuskuzuezalako.

GURE SUSKRIZIÑO-BATZAILLAK

BIZKAIAN

Bermeo, José Antonio Zabala; *Lekeitio*, Julian Zearreta; *Lemona*, Prudencio Arrien; *Plencia*, Bernardino Sierra; *Munguia*, Eustasio Bilbao; *Markina*, Felipe Eizaguirre; *Durango*, Roberto Soloaga.

GUIPUZKOAN

Donostia, Zacarias Leizaola, Loyola, 17, liburuteguia; *Azpeitia*, Salvador Bengoechea, *Bergara*, Francisco Oyanguren; *Tolosa*, Baleriano Mokoroa; *Irún*, Guillermo Iguaran; *Deva*, Esteban Egaña; *Zumaya*, Pedro Ignacio Aizpurua; *Zarauz*, Jenaro Elizondo; *Oñate*, Fermin Bengoa; *Mondragon*, Antonio Kerejeta; *Eibar*, Julian Odriozola; *Rentería*, Gabriel Echebeste.

LA EDITORIAL VIZCAINA ikrichoñ moldaguintzan
Gran Vía, 26 eta Ledesma, 15.

farrez) Bañan zaill da siniztea echeko neskamearekin... zu...

Jose Bai, edo nerekin ura, berdin da; esan, esan ezer ezkutatu gabe.

Pachi ¿Zer uste dezu, emen, gazteri taldea ezpalegoke gaitz-erdi, bañan onenbeste errugabetasunezko lo gozoan oraindik bizi diradenen aurrean esatekoak dirala Karmenen gaiztakeriak? (Jaungoikoak barka nazala). Goazen aita dagoen guelara eta arren aurrean aditzera emango dizkitzut *(Sartzen da Chomiñen guelan.)*

Jose Alde batera obe baizik ezta Aitak ere nere emaztegaiaren berriak jakitea. ¡Bañan, zer esaten det arrek ere obe dala jakitea! ¿Nork berak baño obeto jakin litzazke, aditu izan diotenez, bederatzi urte zituanetik aur-zaintzara ekarrita gueroztik echetik atera eztan mirabe baten kontuak? *Um... um...* ¡Pachi bera ez otedabill Karmen bere semearentzat gorde naiean! Alferrik ibilliko dira ba; ezkontza or galeraziko duten bañan lenago eguiñgo det ler, edo ta gure amari aditu izan diotan bezela, zelemon; bai

orisse. *(Sartzen da Pachi sartun da guelan.)*

ZORTZIGARREN IRUDIA

PERU TA MANU

Manu —Eta ¿zenbat lo eguinda da jaia?

Peru —¿Jaiean esan aldik ba? asta-putza.

Manu —¿Noiz ba?

Peru —Datorren igandean.

Manu —¿Ze ajola ziok jaia edo igandea esan?.

Peru —Ez, batere ez. Urrengo jaia Santu guzien eguna dek, eta guchienaz berroguei ta bost lo eguin bearko dizkiagu ordurako; datorren igandeako berriz, gaur astelena dala.... *(beatzakin kontatuaz)* astelena, bat; asteartea, bi asteazkena, iru; osteguna, lau; ostirala, bost, larunbata, sei: sei bakarrak palta.

Manu —Nik bai-aldakik, igandea len-bait len irissteko, zer eguingo detan?

Peru —¿Zer?

Manu —Bestetan bañan azkarrago lo, eta gañera, oeratzerakoan, aitaren issillik ganero orduari edo *erlejua* aurreratu ¿Zer derizkiok, anai?